

Kirol lorpenen ekitaldirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Udalak

- **Aurreko denboraldiko lorpenen errepassoa bilduko du Kirol sailak berariaz antolatutako ekitaldi baten bitartez**
- **Ekitaldia osatuena izan dadin, kirol elkarteek ez ezik, herritarrek ere proposatu ahal izango dituzte hautagaiak**

Andoainen, 24-11-13.- Kirol emari handia du Andoaingo herriak, eta asko dira, bakoitza bere diziplinan, urtean zehar kirol lorpenen bat eskuratu dutenak. Modu batera edo bestera, urteak dira Udalak lorpen horien errekonozimendua egin duela; aurten horretarako berariaz antolatuko den ekitaldi batean egingo du Udalak kirol eta kirolarien eremuan eman duenaren errepassoa.

Ekitaldia abenduaren amaiera aldera izango bada ere, Udalak deia luzatu nahi die kirol elkarteei ez ezik, baita herritarrei orokorrean ere, aurreko denboraldian kirol eremuan izan diren lorpenen proposamenak Jarduera Fisiko eta Kiroletako sailera bidera ditzaten. Modu honetan, ekitaldia ahalik eta osatuena izatea erdietsiko dugu, eta Andoaingo kirolari guztiei merezi duten aitortza egitea.

Proposamenak allurralde@andoain.eus helbidera bidali beharko dira azaroaren 28a baino lehen. Kirolariak proposatzeko irizpideak honakoak dira:

- .- Kirolariak Andoainen erroldatutakoak edota Andoaingo kirol elkarteetan fitxa dutenak izango dira.
- .- Gipuzkoa, Lurralde edo Estatu mailako txapelkunak eta azpitxapelkunak edo mailaz igoera edo pareko lorpenak lortu dituztenak kontutan hartuko dira.
- .- Mundu mailako txapelketetan parte hartu dutenak.

Halaber, egiten den proposamenaren argazki, bideo, edo irudi grafikoak bidaltzea ere eskertuko da.

Guztion artean osatuko dugu Andoaingo herriak kirol eremuan duen argazki itzela.

